

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua ondo funtziona dezan, egunero egin beharreko jarduera batzuk ezinbestekoak dira. Jarduera hauei esker, balorezko proposamena eskaini, erabiltzaileengana iritsi, haiekin harreman ona mantendu eta diru-sarrerak lortu ahal izango ditugu.

Funtsezko jarduerak hiru multzotan banatuko ditugu: produkzio-jarduerak, arazoak konpontzeko jarduerak eta plataformako jarduerak.



PRODUKZIO-JARDUERAK

Lehenengo jarduera nagusia aplikazioa sortu, garatu eta etengabe hobetzea da. Horren barruan sartzen da plataformaren diseinua egitea, funtzio berriak gehitzea eta aplikazioa erraza eta erabilgarria izatea. Era berean, erabiltzaileek izena emateko, elkarren artean hitz egiteko eta ordainketak egiteko sistemak martxan edukitzea funtsezkoa da. Jarduera hauek dira proiektuaren oinarria.

ARAZOAK KONPONTZEKO JARDUERAK

Beste jarduera garrantzitsu bat arazoak konpontzea da. Hor sartzen dira erabiltzaileek izan ditzaketen arazo teknikoak, ordainketekin lotutako arazoak edo erabiltzaileen arteko gatazkak. Horrez gain, erabiltzaileen iritziak eta feedbacka jasotzea eta kontuan hartzea ezinbestekoa da, aplikazioa hobetzen joateko. Helburua da eskaintzen diren online klase partikularrak kalitatezkoak izatea eta irakasleen gaitasuna bermatzea.

PLATAFORMAKO JARDUERAK

Azkenik, plataformaren kudeaketa eta sareko jarduerak daude. Horien barruan sartzen dira erabiltzaileen aktibitatea kontrolatzea, balorazio-sistema kudeatzea eta komunitatea zaintzea. Marketina edo ordainketa-sistemen konfigurazioa bezalako zeregin batzuk kanpoko enpresei eman ahal izango zaizkie, baina aplikazioaren funtzionamendu nagusia eta proiektuaren ideia beti gure esku egongo dira.